


# Programazio didaktikoak prestatzeko gida



**OINARRIZKO HEZKUNTZA:**  
Lehen Hezkuntza eta  
Derrigorrezko Bigarren  
Hezkuntza

## AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea .....	4
2. Zergatik eta zertarako egin programazioa.....	6
3. Programazio didaktikoa eta hura osatzen duten elementuak .....	7
3.1. Urteko programazio didaktikoa.....	8
3.2. Programazio didaktikoaren elementuak.....	10
3.2.1. Irteera-profila eta haren deskriptoreak.....	10
3.2.2. Arloko edo jakintzagaietako konpetentzia espezifikoak.....	11
3.2.3. Ebaluazio-irizpideak .....	12
3.2.4. Oinarrizko jakintzak .....	13
3.2.5. Ikas-egoerak eta IDU .....	14
3.2.6. Metodologiak .....	16
3.2.7. Curriculuma garatzeko materialak .....	19
3.2.8. Ebaluazioa eta kalifikazioa.....	20
Ebaluazio-tresnak eta -erremintak .....	20
Ebaluaziotik ondorioztatutakoak.....	21
Kalifikazioa .....	22
4. Programazio didaktikoaren berrikuspena .....	23
4.1. Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arloetan edo jakintzagaietan .....	24
4.2. Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna .....	24
4.3. Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina.....	25
5. Bibliografia .....	27
I. ERANSKINA: ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA.....	29
II. ERANSKINA: PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EBALUATZEKO TXANTILOIA.....	32
III. IKAS -EGOERAK AZALPENA.....	34
IV. IKAS -EGOERAK DISEINATZEKO TXANTILOIA .....	44
V. ERANSKINA: IKAS-EGOERA BATEN DISEINURAKO KONTROL ZERRENDA.....	48



Dokumentu hau Berritzegunetako irakaskuntza-konpetentzietan curriculum-garapenean eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneetan esparruko aholkulari-taldearen eta ikuskaritzaren lankidetzarekin egin da.

# 1. Hitzaurrea

---

*Gida hau argitaratu zen egunean, argitaratu gabe zeuden Curriculum Dekretuak; beraz, Dekretua aipatzen denean, Dekretuaren zirriborroaz ari dela ulertu behar da.*

Gida hau laguntza modura eskaintzen da Oinarrizko Hezkuntzan programazio didaktikoak egiteko, hots, Lehen Hezkuntzako ikaskuntza -arloen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jakintzagaien programazio didaktikoetarako. Esku artean duzun dokumentua 2017an argitaratutako gidaren eguneraketa bat da, zeina esteka honetan ikus baitaiteke.

Euskal Autonomia Erkidegoan, aurrerantzean EAEn, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko dekretuaren egungo curriculumaren arauzko printzipioak biltzen ditu. Horri dagokionez, arloaren, jakintzagaiaren edo eremuaren programazio didaktikoko elementu bakoitza definitzen du, egungo araudiaren arabera, eta horien guztien artean ezartzen diren loturak deskribatzen ditu. Horrez gain, gidak kontrol -zerrenda batzuk eskaintzen ditu programazioa egiten duten irakasle -taldeentzako autoebaluazio -tresna gisa.

Hezkuntza Sailaren asmoa da ikasgela guztietan ikaskuntza-proposamenak egitea, ikasle bakoitzak bere bizitzako arlo guztietan (pertsonala, akademikoa, soziala eta profesionala) ahalik eta gaitasun handiena izan dezan. Ildo horretan, beharrezkoa da irakaskuntza-esperientziak eta hezkuntza-ikerketak<sup>1</sup> ikasleen ikaskuntzak errazteko funtsezkotzat jo dituzten alderdiak irakaskuntzako esku-hartzean sartzea ikastetxe guztietan. Hori gertatzeko, ezinbestekoa da benetako aldaketa-eragilea irakasleak direla ulertzea. Funtsezkoa da, beraz, ikaskuntzak errazten dituzten proposamen didaktikoak bultzatzea eta baloratzea, eta behar diren laguntzekin, aldaketa metodologikoei laguntzea behar den kasu guztietan.

Halaber, gida honek programazio didaktikoaren ebaluazioari buruzko atal bat du, Dekretuaren 29. artikuluko 11. puntuak eskatzen duen moduan. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du ebaluazio hori programazio bakoitzari erantsitako dokumentu batean jasoko duen, edo ikasturte amaierako memorian sartuko duen. Funtsezkoena da, irakasleek programazio-planifikazioaren ezaugarri guztiak zaintzea: egokitasuna, zehaztasuna, malgutasuna eta bideragarritasuna. Hortaz, ez litzateke ikasturte amaieraren zain egon beharko programazioak «funtzionatu duen ala ez» aztertzeko; aitzitik, beharrezko aldaketak egin behar dira etengabeko

ebaluazioren bidez. Horretarako, ebaluazioa egiteko balioko duten adierazleak garatzen dira.

Gidaren amaieran, hainbat eranskin daude. Eranskin horietan, urteko programazio didaktikoa egiteko eta ikas-egoerak planifikatzeko txantiloak jasotzen dira, bai eta atal bakoitza osatzeko azalpenen txantiloia ere, programazio didaktikoa ebaluatzeko.

Hala ere, ikastetxe bakoitzak, pedagogia eta curriculum-erabakien barruan, arlo, jakintzagai edo eremuko programazio didaktikoetan curriculumaz zehazteko hartu beharreko erabakiak zehaztuko ditu.

Gida honen helburua proposamen dokumentu adostu bat eskaintzea da. Lagungarria izan dadin ikastetxeentzat, arloen eta jakintzagaien programazio didaktikoak egiteko. Baita, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egiten dituzten zerbitzuentzat ere, modu koordinatu eta koherentean egin daitezkeen. Era berean, jarduteko modu bat erraztu dezake, bai hasierako prestakuntzan, bai irakasleen etengabeko prestakuntzan.

## 2. Zergatik eta zertarako egin programazioa

---

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen. Aldez aurreko hausnarketa horiek doiak eta errealistak izatearen araberakoa izango da, neurri batean, programazioaren kalitatea eta emaitza.

Gida honek arlo, jakintzagai edo eremu bakoitzeko programazio bakarra egitea proposatzen du ikasturte bakoitzerako, ikastetxean hezkuntza-maila horretako taldeen kopurua eta ezaugarriak edozein izanda ere. Irakasle-taldeari dagokio talde-ikasgelaren ezaugarrietara eta beharretara egokitzea.


Programazioak zuzenean eragiten dio irakasleen lan profesionalari. Izan ere, irakasleen eginkizunetako bat da esleituta dituen arloak, jakintzagaiak eta eremuak programatzea eta irakastea (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 91. artikulua, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua), eta honek koherentzia ematen dio ikastetxeko irakasle-taldeari. Azken batean, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatea inplikatzeko du, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan aldez aurretik hartutako curriculum-erabakiak testuinguruan zehaztea adierazten duelako. Beraz, ikasturtean zehar hezkuntza-ekintzari laguntzen dio.

Gainera, programazio didaktikoak arau-eskakizun bati erantzuten dio: ebaluazio objektiboa, ekitatiboa eta bidezkoaren aldeko eskubidea bermatzea. Hori ezin da bermatu aldez aurretik ebaluazio irizpideak eta kalifikazio irizpideak eskola komunitatearen eskura jarri ez badira (ikasleak eta familiak edo legezko ordezkariak). Izan ere, haien baitan jasotako ebidentzien analisisa egingo da eta, horrela, konpetentzia espezifikoen garapena neurtu ahalko da.

Ikastetxe bakoitzak, bere autonomiaren garapenaren barruan, programazio didaktikoaren eredu zehaztu dezake (arloka, jakintzagaika, proiektu globalen arabera, diziplinarteko proiektuen arabera), baina ikastetxeko plangintza-dokumentuetan hartutako erabakiak lotesleak izango dira irakasle guztientzat, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikuluan jasotzen den bezala.

### 3. Programazio didaktikoa eta huraosatzen duten elementuak

Programazio didaktikoa egiteko, kontuan hartu behar dira Dekretuan zehaztutako elementuak eta curriculum-egitura:



Programazio didaktikoaren elementuak eta atalak, honako hauek izan daitezke:

- Funtsezko kompetentziak, irteera -profilaren deskriptoreekin
- Arlo edo jakintzagaietako kompetentzia espezifikoak
- Ebaluazio -irizpideak eta – lorpen adierazleak
- Oinarrizko jakintzak
- Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (aurrerantzean, IDU)
- Metodologia
- Materialak eta baliabideak
- Ebaluazioa eta kalifikazioa
- Ikas-egoerak/proiektuak/atazak...
- Programazio didaktikoaren berrikuspena

Programazioaren elementu guztietan Inklusibitatea eta Aniztasunari erantzutea kontuan hartu behar da, IDU printzipioei jarraituz, Dekretuak jasotzen duena betez.

Arlo, jakintzagai edo eremu bakoitzeko programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan adostu eta zehaztuko dira, eta irakasle bakoitzak berrikusiko ditu ikasturte hasieran, bere ikastaldearen errealitatera egokitzeko.

Ikasmaila bereko irakasle -taldeak koordinatuko ditu ikasgelako programazio didaktikoak, eta elkarrekin prestatu ahal izango dituzte, elkarren arteko koherentzia izan dezaten.

Era berean, mintegi didaktikoek eta ikasketa burutzek arlo, jakintzagai edo eremu bereko programazio didaktikoen koherentzia bermatuko dute etapa osoan zehar.

Honako hauek jasotzen dira gidan:

- Programazioaren elementuak definitzea, bai eta izaera orokorreko zenbait ezaugarri eta gogoeta ere.
- Kontrol -zerrenda batzuk, programazioko elementu bakoitzaren funtsezko ezaugarriak bertan daudela egiaztatzeko.

### 3.1. Urteko programazio didaktikoa




**Programazio didaktikoa** honako hau da: hezkuntza maila jakin bateko arlo, jakintzagai edo eremu baterako irakaskuntza/ikaskuntza prozesuaren plangintza sistematizatua.

Curriculum-erabakiak, bai eta programazio didaktikoan jasotzen diren erabaki metodologikoak irteera-profilean oinarrituko dira .

Urteko programazio didaktikoa ikaskuntza-egoeretan (proiektuak, ikas egoerak, solasaldi dialogikoak, ...) egituratuko da.



<b>Programazio didaktikoa</b>	
Klaustroan programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak adostu dira	
Programazioa arlo, jakintzagai edo eremu hori irakasten duten irakasleek egin dute.	
Xede dituen ikasleen ezaugarriak eta aniztasuna kontuan hartu dira.	
Programazioak funtsezko konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren erabakiak jasotzen ditu.	
<p>Programazioak honako elementu hauek jasotzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• irteera-profilaren deskriptoreak eta funtsezko konpetentziak</li> <li>• arlo, eremu edo jakintzagaietako konpetentzia espezifikoak</li> <li>• ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak</li> <li>• oinarrizko jakintzak</li> <li>• metodologia</li> <li>• materialak eta baliabideak</li> <li>• ikas egoerak/proiektuak/atazak...</li> <li>• ebaluazioa</li> <li>• kalifikazioa</li> </ul>	
Programazioko elementuen artean koherentzia dago	
Programazioa bat dator eta zehaztu egiten du maila edo ziklo horretarako Oinarrizko Hezkuntzako curriculumua ezartzen duen Dekretuarekin.	
<p>Ikas-egoera bakoitzean honako hauek identifikatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Funtsezko konpetentziak</li> <li>• Irteera-profilari dagozkion deskriptoreak</li> <li>• Konpetentzia espezifikoak</li> <li>• Ebaluatzeko irizpideak</li> <li>• Hautatutako oinarrizko jakintzak.</li> </ul>	

## 3.2. Programazio didaktikoaren elementuak

Atal honetan programazio didaktikoaren elementuak eta beraien definizioak garatzen dira. Halaber, erabakiak hartzen laguntzeko kontrol-zerrenda ereduak proposatzen dira.

### 3.2.1. Irteera-profila eta haren deskriptoreak

Irteera-profila definitzen duten funtsezko konpetentziak Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko Gomendiotik eta 2030 Agendako Garapen Iraunkorrerako Helburuetatik<sup>1</sup> eratorzen dira. Horietako bakoitzak hiru dimentsio ditu (kognitiboa, instrumentala eta jarrerazkoa), eta horiek lortzeak lagundu egiten du, bai gainerako guztiak lortzen, bai LOMLOEk Oinarrizko Hezkuntzarako planteatutako helburuak lortzen.

Bizitza osoko ikaskuntzarako funtsezko konpetentzien esparruetatik abiatuta (Europar Batasuneko Kontseilua, 2018<sup>2</sup>), funtsezko konpetentzia bakoitzerako deskriptore operatibo batzuk definitu dira. Deskriptore operatiboek derrigorrezko hezkuntza amaitzean espero den jardun-maila identifikatzen dute. EAEko lehen hezkuntzaren amaierarako gutxi gorabeherako profil bat eskaintzen da.



**Irteera-profilak** ikasle guztiek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu beharreko konpetentzien garapen-maila adierazten du.

Irteera-profila, beraz, ikasleei bizitzan zehar aurre egin beharreko erronkei arrakastaz heltzea ahalbidetuko dieten ikaskuntzak artikulatzen dituen elementua<sup>3</sup> da.

Irteera-profila curriculum-arkitekturaren ardatza da, euskal hezkuntza sistemaren Oinarrizko Hezkuntza osatzen duten etapak kohesionatzen dituena. Beraz, irakaskuntza jardunaren baitan, curriculumarekin, estrategiekin eta orientazio metodologikoekin lotutako gainerako erabakien oinarria da, eta erreferentziazko elementua ere bada, ikasleen ikaskuntza-mailaren barne- eta kanpo-ebaluaziorako.<sup>4</sup>

<sup>1</sup> Garapen Iraunkorrerako Helburuak, Aurrerantzean, GIH

<sup>2</sup> [Lifecomp](#), [Entrecomp](#), [Digcomp 2.2](#), [RFCDC](#), [Greencomp](#).

<sup>3</sup> Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum Dekretuaren I. eranskina

<sup>4</sup> 9. artikulua. Oinarrizko Hezkuntza amaitzen duten ikasleen irteera-profila eta funtsezko konpetentziak (dekretuaren I. eranskina)



Funtsezko konpetentzien **deskriptore operatiboak** esparru erreferentziala dira, eta esparru horretatik zehazten dira arlo, eremu edo jakintzagai bakoitzaren konpetentzia espezifikoak. Deskriptore eta konpetentzia espezifikoen arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako funtsezko konpetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako konpetentziak eta helburuak lortzea ahalbidetzen du.<sup>5</sup>

Maila bereko arloetako, jakintzagaietako edo eremuetako programazio didaktiko edo urteko programazio guztiek irteera-profileko deskriptoreetan zehaztutako funtsezko konpetentzia guztiak garatzen direla bermatu behar dute. Horretarako, programazioan ikas--egoeretan jorratzen diren konpetentzia espezifikoekin lotutako deskriptoreak adierazi behar dira.

### 3.2.2. Arloko edo jakintzagaietako konpetentzia espezifikoak



**Konpetentzia espezifikoak** Ikasleek arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarritzko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak dira. Funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak dira<sup>6</sup>. Irteera-profila jasotzen duen Dekretuaren eranskinean, horien deskribapen bat egiten da, beste konpetentzia batzuekiko lotura zehaztuz, irteera-profilaren deskriptoreen bidez.

Arlo, eremu edo jakintzagai bakoitzeko konpetentzia espezifikoek funtsezko konpetentzien deskriptore operatiboak eta oinarritzko hezkuntza helburuak zehazten dituzte. Urteko programazioan, ikaskuntza -egoeretan banatuta, aurreko guztia bermatu behar da.

Curriculum berria oinarritzkoa eta beharrezkoa da konpetentzia espezifikoen osagaiak ulertzea: zer, nola eta zertarako.

<sup>5</sup> I. eranskina. Ikasleen irteera-profila EAEko Oinarritzko Hezkuntza amaitzean

<sup>6</sup> Dekretuaren 2. artikulua. Definizioak

### 3.2.3. Ebaluazio-irizpideak



**Ebaluazio-irizpideak** ikasteko prozesuaren une jakin batean, arlo edo jakintzagai bakoitzaren kompetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak dira<sup>7</sup>.

Irizpide horiek arauemaileak dira, eta, beraz, nahitaez bete beharrekoak. Lehen Hezkuntzan, irizpideak zikloen arabera definitzen dira. Irakasle-taldeak zikloan zehar nola landu aukeratu beharko du. Hona hemen, besteak beste, aukera batzuk:

- Bi ikasturteetarako ebaluazio-irizpide berak mantendu daitezke. Kasu horretan, irizpide bakoitzaren betetze-maila curriculum-erabakien esparruan ezarritako lorpen-mailaren arabera izango da.
- Ikastaro bikoitietarako ebaluazio-irizpideari eustea eta ikastaro bakoitietarako egokitzea.
- Ebaluazio-irizpideak aukeratzea, ikasleen eta, oro har, ikastetxearen ezaugarriei erantzuteko. Kasu honetan, adierazi, ikasturte bakoitzerako hautatutako ebaluazio-irizpideak izango direla ebaluatuko direnak, baina horrek ez duela esan nahi gainerako irizpideak landu ezin direnik.
- Bere autonomia erabiliz, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ebaluazio-irizpideak gehitu ahal izango ditu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), jakintzagaiaren arabera zehazten dira ebaluazio-irizpideak, ikasturte bakoitzeko edo ikasturte batzuetarako. ikasturte bakoitzeko. Kasu honetan, aukerak Lehen Hezkuntzako berberak dira funtsean, baina jakintzagaiaren arabera ebaluazio-irizpideen banaketa kontuan hartuko da.

Ikastetxeek, beren autonomiaren baitan, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasoko dituzte curriculum-erabaki horiek guztiak.

<sup>7</sup> Dekretuaren 2. artikulua. Definizioak

<b>Ebaluazio-irizpideak</b>	☑
Ikasturte bakoitzean aukeratutako ebaluazio-irizpide guztiak ebaluatu dira.	
Zikloak/mailak amaitzean, Curriculumean aipatutako epeetarako ezarritako ebaluazio-irizpide guztiak ebaluatu dira.	

### 3.2.4. Oinarrizko jakintzak



**Oinarrizko jakintzak** pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituen arlo, jakintzagai edo eremuen berezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, eta, horiekin batera, konpetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunak dira, zeinek ahalbidetuko baitiote problemak ebaztea edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egitea.<sup>8</sup>

Curriculumean adierazitakoez gain, ikastetxeak, bere ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen oinarrizko jakintzak gehitu ditzake.

Urteko programazioan, ikaskuntza-egoeretan (proiektuak, ikas egoerak, solasaldi dialogikoak,...) oinarrizko jakintzen denbora-banaketa adieraziko da.

<b>Oinarrizko jakintzak</b>	☑
Urteko programazioak oinarrizko jakintzak ikasturtean zehar nola banatzen diren zehazten du.	
Konpetentzia espezifikoak garatzeko oinarrizko jakintzen hautaketa egokia da.	
Prozesu, jarrera eta kontzeptuen mobilizazioa lehenesten da haien memorizazio hutsetik harago.	

<sup>8</sup> Dekretuaren 2. artikulua

### 3.2.5. Ikas-egoerak eta IDU

Oinarrizko Hezkuntzako ikas-egoerei buruzko eranskinean, curriculum-elementu berri horren gakoak ematen dira.

Agindutako curriculumaren egitura osatzen duten elementu guztiak lerrokatzearen emaitza da.



**Ikas-egoerak** ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten agertokiak eta jarduerak dira, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa artikulatzea ahalbidetzen du, konpetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegia sostengatzen duten jakintzak eta gaitasunak elkartzen dituzten zenbait testuingurutan oinarrituta.<sup>9</sup>

<b>Ikas-egoerak</b>	<input checked="" type="checkbox"/>
Programatutako ikaskuntza-egoera guztien bidez bermatu da arlo, jakintzagai edo eremurako hautatutako konpetentzia espezifikoak jorratuko direla.	
Ardatza honako hau da: arazoak eta erronkak modu sortzaile, kooperatibo, autonomo, gogoetatsu eta arduratsuan ebaztea.	
Ikas-egoera ikasleen errealitatetik, interesetatik eta motibazioetatik abiatzen da, eta XXI. mendeko erronka nagusiak hartzen ditu barne (digitalizazioa, iraunkortasuna, bizikidetzaren demokratikoa...).	
Ikas-egoera osatzen duten arlo, jakintzagai edo eremuetako irakasleen koordinazioa egon da.	
Ikas-egoerak modu koherente eta eraginkorrean artikulatzen ditu mailari dagozkion oinarrizko jakintzak.	

Edozein ikas-egoera diseinatzen hasten denetik, kontuan hartu behar dira IDU printzipioak, ikasteko eta parte hartzeko oztopoak minimizatzeko. Inplikatzeko hainbat modu eskainiko dira (ikaskuntzaren zergatia), irudikapenerako (zer) eta ekintzarako eta adierazpenerako (nola).

<sup>9</sup> Dekretuaren 2. Artikulua. Definizioak.



**Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)** curriculumara garatzeko printzipioen multzoa da, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera -berdintasuna ematen diena. Helburua benetako inklusioa eta parte-hartzea lortzea da, ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz<sup>10</sup>.

Ikas-egoerak diseinatzeko kontuan hartu al dira IDU jarraibide horiek?

<b>IDU</b>	<input checked="" type="checkbox"/>
Informazioa hainbat modutan aurkezten da (pertzepzioa): audioa, bideoa, piktogramak, irakurketa erraza...	
Informazioa deskodetzen laguntzeko elementu digitalak eta analogikoak erabiltzen ditu.	
Ulermena maximizatzeko ereduak, adibideak eta jarraibideak ematen ditu.	
Materialekin interakzioak edukitzeko baliabide digital eta analogiko ugari erabiltzea ahalbidetzen du.	
Atazari erantzuteko hainbat modu eskaintzen dira (irudikapena eta komunikazioa).	
Funtzio exekutiboen garapena errazten du.	
Interesa erakartzeko aukerak ematen ditu.	
Ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematen ditu.	
Autoerregulaziorako aukerak ematen ditu.	

<sup>10</sup> [IDUrako jarraibideak 2.0 bertsioa](#)

### 3.2.6. Metodologiak



**Metodologia:** Irakasteko eta ikasteko parte hartzen duten elementu guztiak kudeatzeko, antolatzeko edota planifikatzeko erabakitzen diren bideak edo estrategiak dira. Erabakitze prozesu horretan fokoa oinarrizko jakintzetatik ebaluazio irizpideetara eramatea komeniko litzateke.

Erabakitze-prozesuan, ikasleen ikaskuntzek lotura zuzena dute irakasteko erabiliko diren metodologiekin. Ikuspegi inklusibo batetik, ikastetxeak erabaki metodologiko ugari hartu beharko ditu, *“ikaskuntza sakon eta funtzional bat ahalbidetzeko, ikasten dena hainbat ingurunetan erabili eta transferitu ahal izateko, denboran zehar irauteko, erabiltzeko eta era guztietako testuingurutan arazoak konpondu ahal izateko”*<sup>11</sup>.

Aurrekoa gerta dadin bereziki hiru aldagai kontuan izan behar dira:

- Eskolaren asmo nagusia ez da informazioak eta jakintzen transmisioa, baizik eta ikasleen ikaskuntzak eta kompetentziak garatzea.
- Hizkuntzen komunikazio garapenaren jardun-maila kontutan hartzea.
- Baliabide digitalen erabilpen didaktikoa integratzea.

Kompetentzien garapena sustatzen duten metodologiak erabiltzea komeni da, irakasle-taldeak honako alderdi hauei buruzko erabakiak hartu beharko ditu, besteak beste:

- **Ikasleek** ikaskuntzan **zeregin aktiboa izatea**, irakasleak **bideratzaile edo bitartekari bihurtzea**, gidari edo laguntzaile, ikasgelan garatuko dituen ikaskuntza-esperientzien diseinatzaile izateaz gain.
- Ikasleei, jasotako jakintzak edo informazioak erreproduzitu beharrean, hainbat egoeratan **sortzeko, erabiltzeko, aplikatzeko eta komunikatzeko aukera ematea**. Hala nola, jakintza desberdinak haien artean erlazionatu, problema edo kasu bat ebazteko erabili, jakintzei buruzko hausnarketak egin eta haien buruz hitz egin, idatzi, beste gelakideei erakutsi, ...
- **Ebaluazioa ikasleen ikaskuntza-prozesuan txertatzea**.

<sup>11</sup> Dekretuaren 6.4. artikulua



- Eskolako testuinguruak, espazioak, denborak eta ikasleen taldeak **antolatzeko prozedurak berrikustea**.
- Berdinen arteko **lankidetz**a lehen mailako **estrategia didaktikoa izatea**. Hau da elkarrizketa, debatea eta desadostasuna, desberdintasunak errespetatzea, entzuten jakitea, besteen ekarpenekin aberastea eta nor bere baitan duen onena emateko bezain eskuzabal izatea.
- Eskola **ingurune seguru eta goxo bat izatea**, non ikasle guztiak libre eta itxaropentsu sentitzen diren.
- **Balioetan heztea**, garapen iraunkorra, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren, jazarpenaren eta eskolako ziberjazarpenaren prebentzioa, eta bakearen eta giza eskubideen kultura.

*"Irakasleek beren proposamen pedagogikoak landuko dituzte etapa honetako ikasle guztientzat, haien aniztasuna kontuan hartuta. Era berean, ikasleen ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarriko dituzte"*<sup>12</sup>.

Proposamen metodologiko horien zehaztasunak **programazio didaktikoetan islatu behar dira**, irakasleen koordinazio-organoen akordioetatik eta ikasleen gizarte- eta hezkuntza -testuingurutik abiatuta, ahalik eta irakaskuntza pertsonalizatuena lortu nahi baita.

### **Proposamen kompetentzialak**


Gida honen aurreko atal batean ikas egoerei buruzko adierazpenak daude.

Azken finean, Ikas egoera **ataza eta jarduera esanguratsu, garrantzitsu eta artikulatu batzuk egitea, diseinatzea da**, asmo jakin batzuk epe jakin batean lortzeko zehaztua.

Proposamen kompetentzial guztiak ebaluazio irizpideen lorpenera bideratuta egongo dira.

---

<sup>12</sup> Dekretuaren 6.1. artikulua

<b>Proposamen kompetentzialak</b>	
Ikasleen konpetentziak garatzera eta balioetan heztera bideratuta dago.	
Motibazioa, parte-hartzea, autoerregulazioa, konfiantza, elkarrekiko errespetua, auto-ebaluazioa, elkarri ebaluatzea eta abar bultzatzen duten ikaskuntza-giroak sortzen ditu.	
Ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren eragile aktiboak dira.	
Testuinguruan kokatutako eta esanguratsuak diren ikas-egoerak sustatzen ditu.	
Ikasleen maila kognitibora egokitutako erronkak planteatzen ditu, arrazoizko konplexutasunarekin eta beren errealitate eta aniztasunera egokituz.	
Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzen du prozesu metakognitiboen bidez.	
Inklusiorako IDU printzipioak kontuan hartzen ditu: parte-hartzea bultzatzen du, eta informazioa aurkezteko eta adierazteko hainbat modu ematen ditu.	
Ikasleak taldekatzeko eta lankidetzan aritzeko hainbat modu izaten laguntzen du.	
Hainbat baliabide material eta espazial erabiltzen ditu.	
Hainbat baliabide digital erabiltzen ditu.	
Irakasleen arteko lankidetzeta eta erabakiak irakasle-talde osoaren artean hartzea errazten du: tutoretza partekatutak, eremukako lana, diziplinartekotasuna, etab.	

### 3.2.7. Curriculuma garatzeko materialak



**Material didaktiko** deritze ikasleei eta/edo irakasleei irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen plangintza eta/edo garapena eta/edo ebaluazioa egiteko lagungarriak izateko espresuki erabilitako mota guztietako materialei.

Azken urteotan agerian geratu da, bai baliabideen, bai euskarri digitalen garrantzia. Lehenengoan artean, azpimarratzekoak dira Hezkuntza Baliabide Irekiak (aurrerantzean, HBIak). Baliabide horiek UNESCOk bultzatzen ditu, erraztu egiten baitute hezkuntzako eta kalitateko materialak sortzea, erabiltzea, aldatzea eta birbanatzea, *Creative Commons* lizentziekin. Garrantzitsua da kontuan hartzea HBIen bitartez inolako kostu ekonomikorik gabe eskura daitekeela ezagutza, lankidetzaz inguruneetan erabiltzen direlako, metodologia aktiboen erabilera errazten dutelako eta ikasleen neurrira egindako ikaskuntza pertsonalizatzen lagundu dezaketelako.

Kontuan hartu beharreko beste baliabide batzuk dira espazio fisikoak eta ingurune digitalak, elementu elektronikoak eta softwareak edo aplikazioak, ikaskuntza-prozesuaren hobekuntza ahalbidetzen dutenak.

	<b>material didaktikoa</b>	<input checked="" type="checkbox"/>
Lehenetsi egin dira ikasleen funtsezko konpetentziak garatzeko baliabide iraunkorrak eta egokiak.		
Materialek genero-ikuspegia eta kultura-aniztasuna kontuan hartzen dituzte.		
IDU printzipioak kontuan hartzen dituzten askotariko baliabideak daude.		
Informazio-alfabetatzea eta konpetentzia digitalaren eta kultura digitalaren garapena errazten duten askotariko baliabide digital garrantzitsuak hautatu dira.		
Baliabideak aukeratzeko orduan, irizpidetzat hartzen dira GIHak, ingurumenean eragin txikiena dutenak bilatuz.		
Lehenetsi egiten da egiletza errespetatzen duten eta <i>Creative Commons</i> lizentzia duten materialak erabiltzea.		

### 3.2.8. Ebaluazioa eta kalifikazioa

**Ebaluazioaren erreferentea ebaluazio-irizpideak izango dira.** Ebaluazio-irizpideak arlo edo jakintzagai bakoitzaren kompetentzia espezifikoei lotuta daude. **Ebaluazio-irizpide guztiek kompetentzia espezifikoen garapen mailari buruzko informazioa ematen dute,** eta, ondorioz, irteera profila osatzen duten funtsezko kompetentziena ere bai. Irteera profila eta etapako helburuak Oinarrizko Hezkuntzaren amaierako erreferenteak dira.

Beraz, **kompetentzia espezifikoak ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatzen dira,** eta ez oinarrizko jakintzen bidez. Ebaluazioa prozesu konplexua da, eta hortik abiatuta **datuak bildu, aztertu eta, analisi horren arabera, erabakiak hartzen dira.** Ondorioz, irakatsi eta ikasteko prozesuan beharrezkoak diren doikuntzak egingo dira (4. kapitulua, 29. artikulua, 3. puntua).

### Ebaluazio-tresnak eta -erremintak



**Ebaluazio-tresnak:** ikasleen ekoizpenak dira. Ikaskuntzaren ebidentzia gisa balio duten bitartekoak dira.

Kompetentzien ebaluazioak **tresna** askotarikoak erabiltzea eskatzen du. (4. kapitulua, 29. artikulua, 5. puntua). Horien artean ondorengoak:

- aurkezpenak
- elkarrizketak
- idatzizko probak
- galdetegiak
- ekoizpenak
- etab.



**Ebaluazio-erremintak** irakasleak informazioa eta ebidentziak biltzeko eta aztertzeko erabiltzen dituen dokumentuak dira. Beraz, ebaluazio – tresnak eta erremintak, ebaluazio-irizpideen jardun-maila eta lorpen-adierazleen lorpen-maila egiaztatzeko eta dokumentatzeko beharrezko bitartekoak dira. Irakasleak kasuan kasu egokienak direnak erabakiko ditu, balioetsi nahi diren ebaluazio irizpideen eta ikasleen ezaugarrien eta beharren arabera.

**Erremintak** maisu-maistra eta irakasleak informazioa eta ebidentziak biltzeko eta aztertzeko erabiltzen dituen dokumentuak dira:

- kontrol-zerrenda.
- errubrika.
- balorazio eskala.
- ebaluazio diana.
- etab.

<b>Ebaluazio-tresnak eta -erremintak</b>	<input checked="" type="checkbox"/>
Ebaluaziorako hautatutako tresna eta erremintek garatu nahi den/diren irizpideari/irizpideei erantzun diote/diete.	
Ebaluazio tresnek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ebidentziak jaso dituzte	
Erabilitako ebaluazio tresnak askotarikoak dira	
Ebaluazio erremintek ebidentzien analisia ahalbidetu dute.	
Ikasleek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ebaluazioan parte hartzea ahalbidetzen duten erremintak (autoebaluazio eta koebaluaziorako) aurreikusi dira.	

### **Ebaluaziotik ondorioztatutakoak**

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan zehar jasotako ebidentzien analisiaren osteko erabakiak dira:

- programazio didaktikoaren berrikuspena eta doikuntza; hobekuntza
- errefortzu neurriak: indartzeko, egokitzeko, zabaltzeko eta aberasteko proposamenak
- ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren kontzientzia hartu eta erabakiak hartzea
- etab.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen ebaluazioak izaera hezitzailea duenez, beharrezkoa da irakasleek, ikasleen prozesua, jarduna eta ekoizpenak aztertu ondoren, etengabeko atzeraelikadura (feedback) eskaintzea.

Gainera, ebaluazioak izaera hezitzaileaz gain hezigarria ere baduenez, ikasle bakoitzak, autorregulatuz, bere ikaskuntzaren protagonista gisa eta irakasleen gidaritzarekin, beharrezkoak identifikatzen diren erabakiak hartuko ditu.

<b>Ebaluaziotik ondorioztatutakoak</b>	✓
Hartutako erabakiak programazio didaktikoaren berrikuspena, doikuntza eta hobekuntzara bideratuta daude.	
Hartutako erabakietan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indartzeko neurriak jaso dira.</li> <li>• Egokitzeko neurriak jaso dira.</li> <li>• Zabaltzeko neurriak jaso dira.</li> <li>• Aberasteko neurriak jaso dira.</li> </ul>	
Ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren kontzientzia hartu eta erabakiak hartzeko aukera izan du.	

## Kalifikazioa



**Kalifikazioa** ebaluazio-prozesuaren ondoriozko erabakietako bat da. Prozesu honen adierazpen kodetua da, araudiak ezarritako balorazio -eskalaren arabera egiten dena.

Ikasleen ikaskuntza-prozesuen **ebaluazioa** eta arlo, jakintzagai, eremu edo proiektu globalizatuetao ikaskuntzen **kalifikazioa** kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen **ebaluazio-irizpideen arabera** egingo da.<sup>13</sup>

Curriculum-elementuen antolaketa zenbait arlo edo jakintzagai barne hartzen dituzten eremuen bidez egin bada, kalifikazioa modu integratuan egingo da eta bakarra izango da<sup>14</sup>.

Ikastetxe bakoitzak bere **kalifikazio-irizpideak** definitu behar ditu, ebaluazio-irizpideetatik abiatuta, kontuan hartuz irizpide horiek konpetentzia espezifikoen zehaztapena direla. Haur edo ikaslearen eboluzioaren jarraipena egiteko, maisu-maistra eta irakasleek ebaluaziorako baliagarriak diren lorpen-adierazleak (erakusleak) erabiliko dituzte, ebaluazio-irizpideen hurrengo zehaztapen maila. Lorpen-adierazleak, lorpen mailaren arabera neurtuko dira eta hauek ebaluazio-irizpideen jardun maila zehaztuko dute. Horretarako, ebaluazio-prozedura azalduko da eta erabiliko diren ebaluazio-tresnak eta -erremintak adieraziko dira.

<sup>13</sup> Dekretuaren 30. Artikulua.

<sup>14</sup> Dekretuaren 30. Artikulua.

Ikasleek eta beren familiek, hezkuntza-prozesuaren hasieratik ezagutu behar dituzte ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak eta ikasleen promozio-edo titulazio-erabakietan aintzat hartuko diren irizpideak. Ikastetxeek horien berri emango diete ikasturte bakoitzaren hasieran<sup>15</sup>.

	<b>Kalifikazioa</b>	☑
Ikasleek eta beren familiek hezkuntza-prozesuaren hasieratik ezagutzen dituzte ebaluazio irizpideen jardun maila eta horiek kalifikazioan duten balioa.		

#### 4. Programazio didaktikoaren berrikuspena

Programazio didaktikoa irakasle-taldearen berriazko tresna da curriculumeko arlo eta jakintzagai bakoitza planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua kontuan hartuta diseinatuta dago, eta curriculumak ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzea ahalbidetzen du. Programazioa dokumentu dinamikoa da, egokitu daitekeena. Diseinatutako programazioa praktikan jarri ondoren, komeni da birpasatzea, ikasleentzat diseinatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen kalitatea bere aniztasunean aztertzeke, eta berriz formulatu edo hobetu behar den ikusteko.



Horregatik, funtsezkoa da programazioaren oinarria azpimarratzen duten hainbat galderei erantzutea: egokia al da ikasturte horretan eta arlo edo jakintzagai horretan ikaskuntza sustatzeko? Nahikoa zehatza al da irakasleen lana gidatzeko? Beharrezko aldaketak ezartzea ahalbidetzen al du? Malgua al da? Proposatzen duena bideragarria al da? Galdera hauek erantzuteko ez da ikasturte amaiera arte itxaron behar; aldiz, beharrezko doikuntzak dagokien unean egin behar dira, etengabeko ebaluazioaren bidez.

<sup>15</sup> Dekretuaren 29. Artikulua.

## 4.1. Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arloetan edo jakintzagaietan


Programazio didaktikoa baloratzeko irizpide bat ikasleen ikaskuntzari egindako ekarpena da. Beharrezkoa da ikaskuntzaren bilakaeraren azterketa egitea, ebaluazio-saio bakoitzean, gutxienez lehenengo saioan, lortutako emaitzak aurreko urtekoekin alderatu ahalko dira, eta, hurrengoetan, aurreko ebaluazioetan lortutakoekin. Horrek hainbat alderdi ezagutzea ahalbidetuko du: ea eskakizunak ongi doitu diren, ea emaitzek itxaropen positiboak sortzen dituzten ikasleengan, etab. Azterketa horri esker erabaki ahalko da ea beharrezkoa den aldaketak egitea eta programazioaren zenbait elementu egokitzea.

Ikasleen ebaluazioaren emaitzak irteera-profilaren ikuspegitik balioetsi behar dira. Hori dela eta, funtsezkoa da analisia emaitzaren ikusmolde zabaletik egitea.

Bestalde, ikasturte berean hainbat talde badaude, horien emaitzak alderatu beharko lirateke, batez ere oso desberdinak badira, desberdintasunaren arrazoiak aztertzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzeko.

## 4.2. Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna

Irakasle-taldeak bere buruari galdetu beharko dio ea hartutako erabaki metodologikoak bat datozen ikasleen kompetentziak garatzen dituzten ikasketa-prozesuen diseinuarekin. Erabaki metodologiko horien egokitasuna eta praktikan jartzearen irismena berrikustea da programazioa ebaluatzeko oinarrizko beste irizpide bat. Azterketa hori beti ikasle-talde bakoitzarekin eta ikastetxearen beste testuinguru-aldagai batzuekin loturan egin behar da.





### **4.3. Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina**


Funtsezkoa da arlo, jakintzagai edo eremu bakoitzeko planteamendu metodologikoak aztertzea eta ikasgelako eta ikastetxeko giroan duten eragina ikertzea.


Ikaskuntza egon dadin, beharrezkoa da bizikidetza eta lan-giro egokia egotea: elkarrenganako errespetua, ikasgelan garatzen ari denarekiko interesa mantentzea, partekatutako helburuak, etab. Giro hori lortzeko, ikasgelako kudeaketa-planteamenduek partaidetzakoak eta demokratikoak izan behar dute, eta irakasleen ekintzak ikasleen ikasten jarraitzeko interesa sustatu, piztu eta indartu behar du. Planteamendu horiek ikastetxean adostuta egon behar dute, eta Hezkuntza Proiektuan agertu behar dira.

Benetako hezkuntza-ingurune anitzak eta sortzaileak diseinatu behar dira. Horrek esan nahi du:

- Ikasleak benetako jardueretan murgilduko dituzten egoerak, beren ezagutzak praktikan jarri eta berriak sortzeko.
- Elkarrekin bizitzen eta taldean lan egiten ikasteko.

Testuinguru metodologiko horretan, programazio didaktikoa kanpoko kontrol burokratiko eta mekanikoa izatetik kide anitzeko prozesu konplexuagoa izatera pasatzen da, hezkuntzako errealitatea ezagutzeko eta horri buruz gogoeta egiteko.



<p style="text-align: center;"><b>Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina</b></p>	
<p>Programazio didaktikoa bat dator ikastetxeko curriculum erabakiekin.</p>	
<p>Programazioak kontuan hartzen ditu ikasleen berriazko ezaugarriak.</p>	
<p>Programazioa edo atal batzuk berrikusteko edo egokitzeko uneak aurreikusi dira.</p>	
<p>Arlo, jakintzagai edo eremu bakoitzaren ebaluazioaren emaitzek kontuan hartzen dute funtsezko konpetentzia guztien eta erlazionatutako konpetentzia espezifikoaren lorpena.</p>	
<p>Erabakiak hartu dira ikasleen ebaluazioaren emaitzak espero zirenak izan ez direnean.</p>	
<p>Irakasle-taldeak baloratu du aldagai metodologikoen artean koherentzia ote dagoen.</p>	
<p>Praktikan jarri dira programazio didaktikoan islatutako erabaki metodologikoak.</p>	
<p>Ikasgelako giroak erraztu egiten du ikasleek beste ikasleekin eta irakasleekin interakzioa izatea. Eta sustatu egiten du ikaskuntza autonomoa eta ikasleek beren konpetentziak garatzea.</p>	
<p>Programazio didaktikoaren analisiari ezker irakasleek beraien prestakuntza beharrak hauteman eta hobekuntzak proposatzen dituzte.</p>	
<p>Gogoeta hori berriazko dokumentu batean jasotzen da.</p>	

## 5. Bibliografia

---

BERRITZEGUNE NAGUSIA (2017). [\*Programazio didaktikoa prestatzeko gidak\*](#). Oinarrizko hezkuntza. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

CAST (Center for Applied Special Technology) (2.011). *Universal Design for Learning guidelines version 20*. Wakefield, MA: Author. Gaztelaniarako itzulpena, 2.0 bertsioa (2.013): Alba Pastor, C., Sánchez Hípola, P., Sánchez Serrano, J. M. eta Zubillaga del Río, A. *Pautas sobre el Diseño Universal para el Aprendizaje (DUA)*. Testu osoa (2.0 bertsioa). [http://www.udlcenter.org/sites/udlcenter.org/files/UDL\\_Guidelines\\_v2.0-full\\_espanol.docx](http://www.udlcenter.org/sites/udlcenter.org/files/UDL_Guidelines_v2.0-full_espanol.docx) (consultado el 24/5/2017).

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA (2022). Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko DEKRETUAREN ZIRRIBORROA.

Enseñar distinto. Guía para innovar sin perderse en el camino. Melina Furman. Ed. S.XXI.2022.

Programar per competències a l'educació secundària obligatòria

SanMartí, N. (2007) *10 ideas clave. Evaluar para aprender*. Graò



# Eranskina

## I. ERANSKINA: ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILIOIA

### Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:		Kodea:		Ikasturtea:	
Etapas:		Zikloa/maila:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arloa/Jakintzagaia:</li> <li>• Eremua:</li> <li>• Diziplinarteko proiektua</li> <li>• Bestelakoak</li> </ul>		Irakasleak:			

### Programazio didaktikoaren justifikazioa

*Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.*

<b>Curriculumaren plangintza</b>				
<b>Ikas-egoeren izenburua</b>	<b>Arloak, jakintzagaiak, eremua</b>	<b>Konpetentzia espezifikoak</b> <i>(Adierazi erlazionatutako irteera-profilaren deskriptore operatiboak)</i>	<b>Ebaluazio-irizpideak</b>	<b>Oinarrizko jakintzak</b>
LEHEN HIRUHILEKOA				
BIGARREN HIRUHILEKOA				
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				

### Erabaki metodologikoak

*Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.*

### Ebaluazioari, haren ondorioei eta kalifikazio-irizpideei buruzko erabakiak

<b>Ebaluazioa</b>	<b>Ebaluazioaren ondorioak:</b>	<b>Kalifikazio-irizpideak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Helburua (formatiboa, akreditatzailea)</i></li> <li>• <i>Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)</i></li> <li>• <i>Ebaluatze teknika, tresnak eta erramintak</i></li> <li>• <i>Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kalifikazioa</i></li> <li>• <i>Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doitzea</i></li> <li>• <i>Errefortzu-neurriak hartzea, egokitzeko neurriak hartzea, curriculum zabaltzeko eta aberasteko proposamenak</i></li> <li>• <i>Berriazko programatan parte hartzea.</i></li> <li>• <i>Etab.</i></li> </ul>	<p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea</i></li> <li>○ <i>Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea.</i></li> <li>○ <i>Gaitasunen garapen-maila adostea</i></li> <li>○ <i>Berriazko gaitasunen ponderazioa, ebaluazio-irizpideak... definitzea)</i></li> <li>○ <i>etab.</i></li> </ul>

## II. ERANSKINA: PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EBALUATZEKO TXANTILIOIA

Arloa/ Jakintzagaia/Eremua: \_\_\_\_\_

Programazio didaktikoaren berrikuspenerako datak:

1. ebaluazioa Data	2. ebaluazioa Data	3. ebaluazioa Data	...	Ikasturte amaiera Data
-----------------------	-----------------------	-----------------------	-----	------------------------------

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [errefortzu- eta zabaltze-neurriak, antolamendu- eta metodologia-egokitzapenak, emaitzen azterketa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, berreskuratze-sistema...].

EBALUAZIOAREN ADIERAZLEAK	Ikasturtean zehar (ebaluazio jarraitua)	Ikasturte amaieran (amaierako ebaluazioa)
<b>1) Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arloetan, jakintzagaietan edo eremuetan</b>	Emaitzak nahi bezalakoak ez badira, honako doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:</i> ..... ... ..... ... ..... ...
<b>2) Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna</b>	Aldagai metodologikoen koherentziarik edo egokitasunik ez dutela balioesten bada, honako doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:</i> ..... ... ..... ... ..... ...



<p><b>3) Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina</b></p>	<p>Metodologiak ikasgelako eta ikastetxeko giroa hobetzen laguntzen ez duela aintzatesten bada, honako doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ...</li> <li>- ...</li> <li>- ...</li> </ul>	<p><i>Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:</i></p> <p>.....</p> <p>...</p> <p>.....</p> <p>...</p> <p>.....</p> <p>...</p>
--	--	---

*Sinadura (arlo/ jakintzagai/ eremu horretako irakasleak)*

### III. IKAS -EGOERAK AZALPENA



#### Arloa, jakintzagaia edo eremua **Derrigorrezko Hezkuntza**

Gaur egun irakasle askok sortzen dituzten material didaktikoak Sarean partekatzen dituzte, beste irakasle batzuek erabili eta moldatzeko aukera izan dezaten. Hori onuragarria da guztiontzat eta geuk ere ekarpen aktiboa egin dezakegu, gure materialak Creative Commons lizentziapean partekatuz. Alde horretatik, irakaskuntzarako erabilgarrienak **CC BY-SA** eta **CC BY-NC-SA** lizentziak dira.

## 1. ZERGATIK IKAS-EGOERAK?

Irteera-profila da curriculum-a ardatzen duen dokumentua, eta honi lotuak dauden konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko ezartzen dira printzipio metodologikoak. Hauen artean, ikasleek **ikaskuntza-prozesuan duten protagonismoa nabarmentzea** da lehena: ikerketa-metodologiak, zuzeneko instrukzioa, ezagutzaren eraikuntza kolektiboa eta ikasteko ingurune pertsonalen garapena bezalako proposamenekin.

Bigarrena ordea, **ikaskuntza testuingurukoa, esanguratsua, garrantzitsua eta integratzailea bultzatzea** da, testuinguru-elementuak eta curriculum-elementuak artikulatzeko. Zentzu honetan, ikasleek informazioa erabiltzeko eta aplikatzeko aukerak izango dituzte, eta eztabaida baten testuinguruan, fenomeno baten azalpenean edo arazo baten konponbidea eraikitzean oinarritutako iritzia osatuko dute.

Bi printzipio metodologiko hauen harira aurkezten ditugu ikas-egoerak hain zuzen ere, **ikaslea erdigunean** jartzen duen heziketa prozesu esanguratsu bati lotuta alegia. Ikas egoerak hezkuntza proposamen konpetentzial baten barruan kokatzen den hezkuntza tresna bat dira beraz, jakintza eta ekintzaren arteko zubian kokatzen diren heinean. Zubi horretan, ezagutza eta errealitatearen arteko harremana azalaraztea konplikatu da, eta hau modu estrukturatu eta estruktural baten bidez egiteko bidea ematen dute. Zentzua da heziketa prozesuaren gakoetako bat, **ulermenari lotuta** baina baita **motibazioari lotuta** ere, eta ikas egoerek zentsuaren bilaketa honetan asko lagundu dezakete.

Bestalde, eta guzti honekin harreman estuan aldi berean, ezagutzaren ikuspegi integral baten zabalkundean ere garrantzitsuak dira ikas egoerak, jakintza errealitatearekin konektatzeaz gain, jakintzak euren artean harremanetan jartzen dituelako ere, artifizialak diren konpartimentu estankoetatik ateraz.

## 2. ZER DIRA IKAS-EGOERAK?

### Dekretuko definizioa:

Ikasleek funtsezko kompetentziekin eta kompetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten agertokiak eta jarduerak, kompetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak.

Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa artikulatzea ahalbidetzen du, kompetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegia sostengatzen duten jakintzak eta gaitasunak elkartzen dituzten zenbait testuingurutan oinarrituta.

Ikas-egoera arloetako curriculum-elementuak integratu eta errealtatearekin lotzen dituen tresna da:

- Arazoak modu sortzaile eta kooperatiboan konpontzeko, argudiatzeko, imajinatzeko, ikertzeko, ebaluatzeko, komunikatzeko...
- Autoestimua eta autonomia sustatzeko
- Hausnarketa, erantzukizuna eta ikuspegi kritikoa indartzeko
- Atazak dira: kompetentziak praktikan jartzeko eskatzen du; izan ere, zerbait ekoiztu behar da, praktika sozial batean txertatzen dena.

Zer **EZ** dira ikas-egoerak:

- Ikasleek beren kabuz ikertu behar duten gaia.
- Elkarren artean deskonektatutako ataza-multzo bat.
- Ekintza isolatuak: azalpenak, irakurketak, ariketak, eztabaidak, etab.
- Ez dira ataza soilak: Ulermenetik eta erabakiak hartzetik abiatuta (arazoa ebazteko egin beharreko eragiketa hautatzea), prozesu mental erraza behar duen ekintza.
- Ez dira ariketa soilak: Testuingurutik kanpoko ekintza hori ez da bizitza errealari buruzkoa, eta ikasleek mekanikoki egiten dute errepikapenaren eta memorizazioaren bidez.

Ikas-egoeren ardatzak:

- Ikaslea/haurra prozesuaren erdigunean dago.
- Curriculumaren printzipioak kontuan hartzen dituena.
- Kompetentzietan oinarritutako ikuspegi batekin, oinarrizko jakintzak barneratzeko, aktibatze eta erabiltzeko diseinatua.
- Testuinguruan kokatua, esanguratsua eta integratzailea.

## Irakaslearentzako Ikas-egoeren gida

<b>DATU OROKORRAK</b>	
<b>Izenburua</b>	<b>Lizentzia</b>
Ikas-egoeraren izenburua <b>erakargarria eta motibagarria</b> izatea gomendagarria da.	
<b>Inplikaturiko arloak, jakintzagaiak edo eremuak</b>	<b>Maila</b>
Ikas-egoeran garatuko diren <b>arloak, jakintzagaiak</b> edo <b>eremuak</b> .	
<b>Saio kopurua</b>	
Ikas-egoera garatzeko saioen kopurua	
<b>Ikas-egoeraren markoa</b>	
<b>Testuingurua :</b> Kontuan hartuko ditugu <b>XXI. mendeko erronkak edo/eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak</b> alde batetik, eta, bestetik, ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta gelan aurkitu dugun <b>errealitatea edo/eta ikasleen interesak</b> hasierako paragrafoan zein testuinguruan kokatzen den ikas-egoera deskribatzeko.	
<b>Abiapuntua:</b> Ikas-egoeraren <b>eskaria, arazo, erronka edo galdera</b> .	
<b>Azken ekoizpena edo produktua:</b> Ikasleek egingo duten <b>azken ekoizpena</b> aipatuko dugu, hori izango baita ebidentzia moduan ebaluatzeko erabiliko duguna. Bukatzeko, ikas-egoeran garatutako <b>ekoizpena nola zabalduko</b> den aipatuko dugu.	
<b>Proposamenaren xedea</b>	
Ikas-egoeraren <b>xedea</b> idatziko dugu, zergatik, zer (ikaskuntza nagusia) eta nola (lortuko dugu), Ikas-egoeraren markoan aipatzen dena kontuan hartuz.	

<b>ARGUDIAKETA CURRICULARRA</b>
<b>Funtsezko kompetentziak</b>
Ikas-egoeran lantzen direnak bakarrik aipatu behar dira.
<b>Deskriptoreak</b>
Ikas-egoeran lantzen direnak bakarrik aipatu behar dira.
<b>Kompetentzia espezifikoak</b>
Arlo edo jakintzagai bat baino gehiago programatzen direnean, adierazi. kompetentzien enuntziatua eta numerazioa errespetatzea, dekretuan aipatzen direnak betez.
<b>Ebaluazio-irizpideak</b>
irizpideen enuntziatua eta numerazioa errespetatzea, dekretuan aipatzen direnak betez.
<b>Oinarrizko jakintzak</b>
Blokea eta hautatutako oinarrizko jakintzak adieraztea. Proposamena garatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste jakintza batzuk gehitu daitezke.

Hemendik aurrera norberak sortzen du, betiere argudiaketa curricularrarekin koherentzia mantenduz.

### Jarduera/Ataza/Ariketa

**Ariketa:** Testuingurutik kanpoko ekintza, ez da bizitza errealari buruzkoa, eta ikasleek mekanikoki egiten dute errepikapenaren eta memorizazioaren bidez.

**Jarduera:** Ulermenetik eta erabakiak hartzetik abiatuta (arazoa ebazteko egin beharreko eragiketa hautatzea), prozesu mental erraza behar duen ekintza.

**Ataza:** <sup>1</sup>konpetentziak praktikan jartzeko eskatzen du; izan ere, zerbait ekoiztu behar da, praktika sozial batean txertatzen dena.

### ATAZA/JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA (irakasleentzat)

Adierazi ataza zenbaki + izenburua + deskribapena.

#### Hasierako fasea

Fase honetako ataza motak:

- Ikasleen **parte-hartzea** eta **motibazioa** sustatzeko ataza: aurretiazko ezagutzak identifikatzea, interesekin lotzea eta jakinmina eta ikasteko gogoia eragiten dituztenak.
- **Proposamenaren aurkezteko** atazak: helburua, zereginen ibilbidea, portfolioa edo ikasteko egunerokoa eta Ikas-egoeraren ebaluazio-irizpideak ikasleekin partekatzeko direnak.
- **Ikaslegoaren antolatze** atazak: lantaldeak sortzea eta rolak eta funtzioak banatzeko helburua dituztenak,
- **Metakognizioa** sustatzeko atazak: hasierako fase honetan landutakoa barneratuta dagoela egiaztatze baliagarriak direnak.

#### Garapen fasea

Fase honetako ataza motak:

- Informazio berria **aurkitzeko**, **antolatze** eta **ulertzeko** atazak: Ikerketa gidatuak (iturrien fidagarritasuna baieztatzeko laguntzarekin), antolatzaile grafikoak, ulermen ariketak, etab.
- Ikasitakoa **erabiltzeko** atazak: irakaslearen laguntzarekin, liburu baten gidarekin, bideo-tutorial batean agertzen diren prozeduraz jarraituz, etab.
- **Sintesia**, **abstrakzioa** eta **hausnarketa** bultzatzen dituzten atazak: ereduak lantzen edo gogora ekartzeko balio dituztenak eta erlazionatzeko konparatzeko, sailkatzeko, mailakatzeko, sekuentziatzeko praktikak proposatzen: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lantaldeen funtzionamenduari buruzko informazioa eskaini eta hobekuntzak bilatzeko garatzen direnak.

## Amaierako fasea

Fase honetako ataza motak:

- **Amaierako ekoizpena gauzatzeko** atazak garatzen dira: ekoizpenerako beharrezkoak direnentzako saio batzuk gorde dira.
- Amaierako **ekoizpena zabaltzeko** atazak.
- **Hausnarketarako** eta **ebaluaziorako** atazak: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lan-taldeen funtzionamenduari buruzko informazioa eskaintzen dituztenak

## METODOLOGIA

Sortutako ikas-egoera **metodologia aktibo**etan oinarrituta egotea hobesten da. Metodologia hauetan, ikasleak dira protagonistak eta modu aktiboan parte hartzen dute beren ikaskuntza-prozesuan. Beraz, horrelako metodologiak erabiltzeak ikasleak ahalduzko aukera ematen du, **ikaslea ikaskuntzaren erdigunean** jarritz.

Bestalde, metodologia aktiboen ezaugarri nagusietako bat **talde-lana** da (ikasketa kooperatiboa, talde eragileak...). Izan ere, ikasleek elkarrekin lan egin behar dute helburu bera lortzeko.

### Printzipioak

Eredu pedagogikoa adieraztea gomendagarria da:

#### **Irakaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU):**

- Ikasleak inplikatzeko modu ugari ematen dira interesa atzemateko, ahalegina eta iraunkortasuna mantentzeko eta auto-erregulatzeko.
- Informazioa irudikatzeko modu ugari erabiltzen dira (pertzepziorako, hizkuntzarako, adierazpen matematikoetarako, eta ulermenerako)
- Ekintza-eta adierazpen-modu ugari eskaintzen dira interakzio fisikoa, adierazpena, komunikazioa eta funtzio exekutiboak garatzeko

#### **Metodologiak eta estrategiak:**

- Zerbitzu-Ikaskuntza
- Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)
- Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza
- Atazetan Oinarritutako Ikaskuntza
- Ikerketan Oinarritutako Ikaskuntza
- Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntza (TBL) (Pentsatzeko trebetasunak eta errutinak)
- Ikasgela iraulia (*Flipped Classroom*)
- Gamifikazioa
- Kasu-azterketa
- *Design Thinking*
- Ikasketa kooperatiboa
- Ikas-komunitateak
- Bestelakoak

## Antolaketa

Ikasleak, irakasleak eta espazioak antolatzeko modua adieraztea.

### Ikasleak taldekatzea:

- Banaka
- Bikoteka
- Talde txikitan
- Ikasgela-taldea
- Talde homogeneoak
- Talde heterogeneoak
- Talde interaktiboak
- Talde malguak
- Bestelakoak:

### Espazioaren antolaketa:

- Ikasgela
- IKT ikasgela
- Laborategia
- Liburutegia
- Patioa
- Ikus-entzunezkoen gela
- Inguruneko espazioak (plaza, parkea, frontoia, etab.)
- Museoak
- Sormen GLab
- Bestelakoak:

### Irakasleak antolatzea:

- Eskuartzeak eta eginkizunak
- Koordinazioa
- Ko-irakaskuntza

## Baliabideak

Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak adieraztea.

### Ohikoak:

- digitalak
- grafikoak eta ikonikoak
- web-baliabideak
- ikus-entzunezkoak
- errealitate birtuala
- adimen artifiziala
- Bestelakoak:

### Ez- kanpokoak:

Erakundeak

- Museoak
- Adituak
- Urruneko laborategiak
- Ikerketa-zentroak
- Enpresak
- Bestelakoak



## EBALUAZIOA

### Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak

- Ebaluazio irizpideen garapena jardun-mailetan zehazten da.
- Ebaluazio irizpideak behagarriak eta egiaztagarriak izateko lorpen adierazleetan aletuko dira.
- Atazetan, lorpen adierazle espezifikoak sortuko dira lorpen adierazle generikoak atazarako hautatutako oinarritzko jakintzekin osatuz.
- Hauen ponderaziotik, ebaluazio irizpidearen jardun maila ondorioztatuko da, irizpidearen garapen maila islatuko duena.

Azalpena hobeto ulertzeko definizioak:

**Ebaluazio irizpideak:** Ikasteko prozesuaren una jakin batean, arlo eta jakintzagai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak dira.

**Jardun-maila:** Ebaluazio irizpidearen jarduna neurtzen duen eskala-erreferentea da.

**Lorpen adierazleak:** Haur edo ikasle baten eboluzioaren jarraipena egiteko, maisu-maistra-irakasleek erabiliko dituzten ebaluaziorako behagarriak eta egiaztagarriak diren erakusleei deritzo; ebaluazio irizpideen hurrengo zehaztapen maila.

### Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)

Ikasleen ekoizpenak, ikaskuntzaren ebidentzia gisa balio dutenak.

- Ikaskuntzaren egunerokoa
- Ekoizpenak eta artefaktuak
- Aurkezpenak eta irudikapenak
- Dokumentuak, monografikoak eta abar.
- Ahozko eta idatzizko probak
- Bestelakoa

### Ebaluatzeko erremintak

Irakasleek informazioa eta biltzeko eta aztertzeko erabiltzen dituzten dokumentuak.

- Kontrol-zerrenda
- Errubrika
- Balorazio eskala
- Erregistro deskribatzailea
- Ebaluazio diana
- Bestelakoa

## **Ebaluazioa**

### **Motak:**

- Ebaluazio hezitzailea: Feedback
- Ebaluazio hezigarria: Feed-forward
- Ebaluazio sumatiboa
- Bestelakoak

### **Eragileak:**

- Autoebaluazioa
- Hetero-ebaluazioa
- Ko-ebaluazioa

### **Teknikak:**

- Behaketa
- Galdetegiak/elkarrizketak
- Idatzizko/ahozko frogak
- Bestelakoak

## **Kalifikazioa**







Kalifikazioa ebaluazio-prozesuaren ondoriozko erabakietako bat da. Prozesu honen adierazpen kodetua da, araudiak ezarritako balorazio eskalaren arabera egiten dena.

## HIZKUNTZA TRATAERA EGOKIA

Hezkuntza-materialen hizkuntza-kalitatea bermatu behar da zehaztasunaren, ulergarritasunaren eta egokitasunaren mesedetarako. Horrenbestez, erabilitako hizkuntzak bi baldintza betetzea bermatu behar da:

- Hizkuntza zuzena, zehatza eta ulergarria izatea: kontuan hartu behar dira hizkuntza estandarrerako arau eta gomendio guztiak eta hezkuntza-materialetarako berariaz emandakoak.
- Hizkuntza ikasleen egoerara egokitua erabiltzea: ikas-egoeretako hizkuntzaren erabileran, ikasleen hizkuntza ezagutza-eta erabiltze-maila, aniztasuna eta adinak baldintzatutakoa hartu behar da kontuan, hizkuntzak ere inklusioa ziurtatzen lagundu behar baitu, ikaskuntza eraginkorra izango bada.

Egun, irakasleok hainbat baliabide ditugu, hezkuntza-materialetan euskara zaintzeko:

	<a href="#">Euskalbar</a> : euskarari lotutako web-baliabideak erabiltzeko tresna informatikoa.
	<a href="#">Xuxen zuzentzaile automatikoa</a> : akats ortografikoak saihesteko.
	<a href="#">Euskaltzaindia</a> : arauak, gomendioak eta kontsulta-zerbitzua ( <a href="#">Jagonet</a> ).
	<a href="#">EIMaren estilo-liburua</a> : hezkuntza-materialetan kontuan hartzeko gomendioak.
	<a href="#">Kontsulta-zerbitzua</a> : IRALEK unibertsitateaz kanpoko langileei eskainitako kontsulta- eta aholkularitza-zerbitzua.
	<p><a href="#">Itzultzaile neuronal</a>: itzulpenetarako abiapuntu interesgarria da. Aplikazio hau erabiltzeko, hau da jokabide egokiena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenik, sortutako testua jatorrizkoarekin alderatzea eta, interpretazio okerrik izanez gero, zuzentzea. Esaterako, aplikazioak emandako "números quebrados o fracciones", "zenbaki <b>hautsiak</b> edo zatikiak" itzulpena zuzendu beharko litzateke: "<b>zaticizko</b> zenbakiak edo zatikiak"</li> <li>• Ondoren, euskarazko bertsioa osorik berrikustea eta orraztea, joskera, idazmoldeak eta hiztegia egokiak direla ziurtatzeko.</li> </ul>

Lan horretan, irakasleon bakarkako lana ezinbestekoa da, eta batez ere lantaldearena, ez baitago lankidetzan aritzea baino jarduera aberasgarriagorik eta eraginkorragorik: inteligentzia kolektiboa da emankorra, baita testugintzan aritzeko ere.



**ARGUDIAKETA CURRICULARRA**

<b>Funtsezko kompetentziak</b>	<b>Deskriptoreak</b>	<b>Konpetentzia espezifikoak</b>	<b>Ebaluazio-irizpideak</b>	<b>Oinarrizko jakintzak</b>
<b>Arloa, jakintzagaia edo eremua</b>				
<b>Arloa, jakintzagaia edo eremua</b>				
<b>Arloa, jakintzagaia edo eremua</b>				

## METODOLOGIA

<b>Printzipioak</b>	<b>Antolaketa</b>	<b>Baliabideak</b>

## JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA

### HASIERAKO FASEA

Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio irizpidearekiko
1.					
2.					

### GARAPEN FASEA

Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio irizpidearekiko
1.					
2.					
3.					

### AMAIERAKO FASEA

Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio irizpidearekiko
1.					
2.					
3.					

## V. ERANSKINA: IKAS-EGOERA BATEN DISEINURAKO KONTROL ZERRENDA

DATU OROKORRAK	BAI	EZ
<b>Azala</b>		
Ikas-egoeraren izenburua <b>erakargarria eta motibagarria</b> da.		
Creative Commons <b>lizentzia</b> erabiltzen da (gomendagarria)		
Beste norbaitek sortutako ikas-egoera moldatu baino lehen <b>berrerabiltzeko lizentziatuta dagoela ziurtatu</b> dugu.		
Beste norbaitek sortutako ikas-egoera moldatu badugu, nahasteak saiesteko <b>izenburua aldatu</b> dugu. (gomendagarria)		
Ikas-egoera moldatu badugu <b>jatorrizko lizentzia</b> errespetatu dugu.		
Ikas-egoera moldatu badugu <b>iturria</b> aipatzen dugu.		
<b>Datuak</b>		
Inplikaturiko <b>arloak, jakintzagaiak</b> edo <b>eremuak</b> aipatzen dira.		
Erabiliko den <b>maila</b> finkatu da.		
Erabiliko diren <b>saio kopurua</b> islatzen da.		
<b>Ikas-egoeraren markoa</b>		
Testuinguruan <b>XXI. mendeko erronkak</b> edo <b>Garapen Iraunkorrerako Helburuak</b> agertzen dira.		
Testuinguruan <b>Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP)</b> eta gelan aurkitzen den <b>errealitatea</b> aipatzen dira.		
Testuinguruan <b>Ikasleen interesak</b> kontuan hartzen dira		
Abiapuntuan ikas-egoeran <b>eskaria, arazo, erronka edo galdera</b> planteatzen da		
<b>Azken ekoizpena edo produktua</b> zein izango den aipatzen da.		
Azken ekoizpena <b>nola zabalduko den</b> azaltzen da.		
<b>Proposamenaren xedea</b>		
<b>Proposamenaren xedea</b> atalean zergatik, zer eta nola galderei erantzuten da.		



<b>ARGUDIAKETA CURRICULARRA</b>		
Lantzen diren <b>Funtzesko Konpetentziak</b> baino ez dira aipatzen.		
Ikas-egoeran garatuko diren Funtzesko Konpetentziekin lotuta dauden <b>Deskriptore Operatiboak</b> baino es dira jasotzen.		
<b>Konpetentzia(en) Espezifikoa(en)</b> enuntziatua(k) eta numerazioa(k) errespetatzen dira.		
Kontutan hartuko diren <b>Ebaluazio irizpideak</b> baino ez dira jasotzen.		
Kontutan hartuko diren <b>Ebaluazio irizpideak</b> enuntziatua(k) eta numerazioa(k) mantentzen dira.		
<b>Beste jakintza batzuk</b> gehitu dira (ezinbestekotzat jotzen badira)		

<b>JARDUEREN SEKUENTZIA</b>		
<b>Hasierako fasea</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Ikasleen <b>parte-hartzea</b> eta <b>motibazioa</b> sustatzeko jarduerak proposatzen dira: aurretiazko ezagutzak identifikatzea, interesekin lotzea eta jakinmina eta ikasteko gogoia eragiten dituztenak.		
<b>Proposamena aurkezten</b> da: helburua, zereginen ibilbidea, portfolioa edo ikasteko egunerokoa eta Ikas-egoeraren ebaluazio-irizpideak ikasleekin partekatzeak direnak.		
<b>Ikaslegoa antolatzeko</b> jarduerak antolatu dira: lantaldeak sortzea eta rolak eta funtzioak banatzeko helburua dituztenak,		
<b>Metakognizioa</b> sustatzeko jarduerak: hasierako fase honetan landutakoa barneratuta dagoela egiaztatzeak baliagarriak direnak.		
<b>Garapen fasea</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Informazio berria <b>aurkitzeko, antolatzeko</b> eta <b>ulertzeko</b> jarduerak proposatzen dira: Ikerketa gidatuak (iturrien fidagarritasuna baieztatzeak laguntzarekin), antolatzaile grafikoak, ulermen ariketak, etab.		
Ikasitakoa <b>erabiltzeko</b> jarduerak garatzen dira: irakaslearen laguntzarekin, liburu baten gidarekin, bideo-tutorial batean agertzen diren prozeduraz jarraituz, etab.		
<b>Sintesia, abstrakzioa</b> eta <b>hausnarketa</b> bultzatzen dituzten jarduerak antolatzen dira: ereduak lantzen edo gogora ekartzeko balio dituztenak eta erlazionatzeko konparatzeko, sailkatzeko, mailakatzeko, sekuentziatzeko praktikak proposatzen dituztenak		
Ezagutzak <b>baloratzeko eta hobetzeko</b> baliagarriak diren jarduerak eskaintzen dira: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lan-taldean funtzionamenduari buruzko informazioa eskaini eta hobekuntzak bilatzeko garatzen direnak.		
<b>Amaierako fasea</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
<b>Amaierako ekoizpena gauzatzeko</b> jarduerak garatzen dira: ekoizpenerako beharrezkoak direnentzako saio batzuk gorde dira.		
Amaierako <b>ekoizpena zabaltzeko</b> jarduerak jaso dira.		
<b>Hausnarketarako</b> eta <b>ebaluaziorako</b> jarduerak proposatzen dira: galderen bitartez metakognizioa gidatzen dutenak (ikasketa-koadernoak) eta lan-taldean funtzionamenduari buruzko informazioa eskaintzen dituztenak		

<b>METODOLOGIA</b>		
<b>Printzipioak</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Ikasleak inplikatzeko modu ugari ematen dira (Ikaskuntza Diseinu Unibertsala-IDU)		
Informazioa irudikatzeko modu ugari erabiltzen dira (IDU)		
Ekintza-eta adierazpen-modu ugari eskaintzen dira (IDU)		
Hizkuntzen tratamendu bateratua kontuan hartu da		
Metodologia eta estrategia ugari proposatzen dira.		
<b>Antolaketa</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Ikasleak taldekatzeko modua adierazten da.		
Espazioaren erabilera finkatzen da.		
Irakasleak antolatzeko modua azaltzen da.		
<b>Baliabideak</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Erabiliko diren baliabide ohikoak aipatzen dira.		
Ohik kanpoko baliabideak jaso dira.		

<b>EBALUAZIOA</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Jarduera bakoitzeko lorpen adierazleak jasotzen dira.		
Jarduera ebaluagarri bakoitzean erabiliko den ebaluazio tresna (ebidentzia) azaltzen da.		
Ebidentzia baloratzeko erabiliko den erraminta jasotzen da.		
Ebaluazio mota ezberdinak kontuan hartzen dira: hezitzailea (feedback-a), hezigarria (Feed-forward) eta sumatiboa (kalifikazioa)		
Eragile ezberdinak ebaluatzeko jarduerak antolatu dira (autoebaluazioa, hetero-ebaluazioa eta ko-ebaluazioa)		
Hainbat ebaluazio teknika erabiltzea proposatzen dira: behaketak, galdetegiak/elkarrizketak/, etab.		
Eskatzen duten jardueretan ebaluazio irizpidearekiko ponderazioa adierazten da.		